



galtzaundi
e u s k a r a t a l d e a

**COVID-19 KRISIAREN ERAGINA
TOLOSAKO SALTOKIETAKO
PAISAIA LINGUISTIKOAN**

2020ko ekaina

AURKIBIDEA

SARRERA	3
EGITASMOAREN HELBURUAK	3
METODOLOGIA	4
EMAITZAK	5
1. Emaidza orokorrak.....	5
2. Saltokien tipologiaren araberrako emaitzak.....	7
3. Sare sozialetako emaitza orokorrak.....	11
4. Sare sozialetako emaitzak, saltokien tipologiaren araberra.....	13
5. Emaidzen laburpen taulak.....	21
ONDORIOAK	22
GALTAUNDIREN IRAKURKETA	24
AURRERA BEGIRA ZER?	26
ERANSKINAK.....	27
1. Eranskina: Ikerketaren inkesta.....	27

2020ko ekaina

Galtzaundi Euskara Taldea

Nafarroa etorbidea 6

20400 Tolosa (Gipuzkoa)

943 65 50 04

galtzaundi@galtzaundi.eus

www.galtzaundi.eus



SARRERA

Urteak daramatzate Galtzaundi Euskara Taldeak, Tolosako Udalaren euskara zerbitzuak eta UEMAK Tolosako kaleetako saltokien paisaia linguistikoa euskalduntzeko ahaleaginean. Horretan, azken urteetan bidelagun izan dira Tolosa&Co merkatarien elkarteak eta saltokietako arduradun eta langile asko eta asko.

2020ko martxoan, COVID-19 gaitzak osasun larrialdi egoeran jarri du gizartea eta horren ondorioz, egun batetik bestera, Tolosako ehunka saltokik beren negozioak itxi behar izan dituzte bat-batean. Beste hainbat saltokik ordea, euren jarduna eta zerbitzuak beharrezkotzat jota, saltokiak neurri bereziekin ireki behar izan dituzte. Egoera horrek, herriko paisaia linguistikoan eragin nabarmena izan du, izan ere, bat-batean itxi behar izan duten saltokiek egoeraren berri emateko mezuak jarri dituzte euren erakusleihatuetan. Irekita mantendu direnek beriz, segurtasun neurrien inguruko azalpenak emateko kartelak eta oharrak jarri behar izan dituzte.

Egoera horrek ordea, ezustean harrapatu ditu saltokiak eta baita eurekin hizkuntza kudeaketan lanean ari diren elkarteak eta erakundeak ere. Batetik, saltokietako langile eta arduradunek kartelak eta ohar ugari jarri dituzte herritarrei zuzenduta. Bestetik, sare sozialen erabilerak nabarmen egin du gora, eta hor ere saltokiek euren mezuak zabaltzeko beharra ikusi dute.

Hori horrela izanda, Galtzaundi Euskara Taldeak interesgarri ikusi du osasun larrialdi egoeran Tolosako paisaia linguistikoa aztertzea, saltokietako erakusleihatuetan eta mezuetan erreparatuz.

EGITASMOAREN HELBURUAK

Azterketa honen bidez, krisi larrialdi egoerak Tolosako kaleetako paisaia linguistikoan izan duen eragina aztertu nahi izan da. Hauek dira, laburbilduz, 2020. urtean landutako azterketaren helburuak:

- COVID-19aren ondorioz jarritako Tolosako mezuen hizkuntza erabilera aztertzea.
- Saltokiek larrialdi egoeraren aurrean izandako jarrerak aztertzea, eta zailtasunak eta hobetu beharrekoak identifikatzea.
- Etorkizunean suertatu daitezkeen antzeko egoerentarako egin beharrekoen analisia gauzatzeko eta lan-banaketa proposamena garatzea.

METODOLOGIA

Ikerketaren asmoak eta helburuak finkatu ondoren, berau egiteko behaketa formularioa¹ sortu eta aurre-prestaketa lanak egin ditu Galtzaundi Euskara Taldeak. Informazio bilketarako galde-sorta prestatu ondoren, hori Internet bidez bete ahal izateko galdetegia egokitu da.

Behaketarako maiatzaren 11, 12 eta 13a aukeratu dira, ordura arte itxita egon diren saltoki txiki asko lehen aldiz irekitzeko egunak izanda, ohar gehiago jarri zitzaketela aurreikusiz. Galtzaundiko hiru teknikarik behatu dituzte saltokiak, guztira 602. Ondoren, ordenagailu bidez hiru egun horietan sare sozialetan egindako argitalpenei erreparatuz antzeko behaketa egin da. Hori ordea, 602 saltoki horien prospekzio bat ausaz aukeratuz eta saltokien tipologiaren bolumen portzentuala mantenduz egin da, guztira 100 saltokiren lagina aztertuz sare sozialetan.

Landa-laneko datuen informatizatzeko lanak egitea izan da hurrengo pausoa datu kuantitatiboaren analisia eginez. Ondoren, txostenaren erredakzioarekin amaitu da.


¹ Ikusi 1. eranskina

EMAITZAK

1. Emaiza orokorrak

Aurretik aipatu bezalaxe, guztira 602 saltoki behatu dira Tolosako kaleetan. Ikusi daitekeenez, kaleetan saltoki txikiak dira nagusi (%44), ondoren zerbitzuak daude (%35), ostalaritza lan egiten dutenak (%15) eta azkenik, kate handien parte diren saltokiak eta zerbitzuak (%6).


Laginaren banaketa saltokien jardueraren arabera



■ Saltoki txikiak ■ Kate handietako saltokiak/zerbitzuak ■ Ostalaritza ■ Zerbitzuak

Maiatzaren 11, 12 eta 13an behatu ziren saltokiak eta egun horietan jaso zuten irekitzeko baimena denda askok eta askok. Hori kontuan izanda, behaketaren momentuan saltokien %56ek atea itxita zituzten oraindik.

Saltokien egoera behaketa egunetan




■ Irekita ■ Itxita

Galtzaundi Euskara Taldea

COVID-19 krisiaren eragina Tolosako saltokietako paisaia linguistikoan


Saltokiak erabat itxi aurretik edo ondoren, irekitakoan, ohikoa izan da zuzenean edo zeharka COVID-19aren krisi egoeraren ondorioz sortutako mezuak jartzea saltoki askok eta askok euren erakusleihoetan. Behatutakoaren arabera, saltokien erdiek baino gehiagok (%53) jarri dute horrelako mezuren bat.

COVID-19arekin lotutako mezuak



COVID-19arekin lotutako mezuak jarri dituzten horiei erreparatuz, ele bitan idatzitako mezuak gailendu dira (%42) eta horien ondoren, gazteleraz idatzitakoak (%38). Euskara hutsean edo euskaraz gehiago edo modu ikusgarriagoan jarritako mezuak %14 izan dira.

Mezuen hizkuntza: orokorra




2. Saltokien tipologiaren arabera


Osasun larrialdi egoerarekin zerikusia duten mezuei saltokien tipologiaren arabera begiratu gero, desberdintasun batzuk nabaritu ditzakegu.

Saltoki handien multzoan sailkatu dira kate handietako merkataritza-guneak, banketxeak, seguru etxeak etab. Horietatik %81ek COVID-19arekin lotutako mezuren bat jarri dute. Gaztelania hutsean jarri dituzte mezu horien gehiengoa (%43) eta gaztelania ikusgarriago dutenak gehituz, saltokietan jarritako mezuen %68etan gaztelania zen nagusi.

COVID-19arekin lotutako mezuzak: saltoki handiak



Mezuen hizkuntza: saltoki handiak




Galtzaundi Euskara Taldea


COVID-19 krisiaren eragina Tolosako saltokietako paisaia linguistikoan

Ostalaritzaren arloan, gehienbat tabernak eta jatetxeak sailkatu dira behaketa egiterakoan. Kopuru osoaren %22k soilik jarri dute koronabirusaren krisia dela eta mezuren bat. Erdiek erdara hutsean jarri badituzte ere, elebitasunaren eta euskara nagusi izatearen alde jo dute beste erdiek.

COVID-19arekin lotutako mezuak: ostalaritza



Mezuen hizkuntza: ostalaritza




Galtzaundi Euskara Taldea


COVID-19 krisiaren eragina Tolosako saltokietako paisaia linguistikoan

Saltoki txikiei erreparatuta, mota askotako dendak sailkatu ditzakegu bertan, baina nagusienak, arropa eta elikagai dendak dira. Behatutako denden %58k jarri dute osasun egoerak bultzatutako mezuren bat. Elebitasunaren aldeko joera (%40) izan da nagusi, erdara hutsean jarritako mezuekin batera (%35). Euskaraz bakarrik idatzitako mezuek %13 izan dira.

COVID-19arekin lotutako mezuek: saltoki txikiak



Mezuen hizkuntza: saltoki txikiak




Galtzaundi Euskara Taldea


COVID-19 krisiaren eragina Tolosako saltokietako paisaia linguistikoan

Zerbitzuen atalean sailkatu dira fisioterapia zentroak, optikak, ileapaindegiak edota sukaldeko tresnen dendak, besteak beste. Tipologia horrelako denden %56k jarri dute COVID-19arekin lotutako mezuren bat erakusleihoan. Elebitasunaren alde egin dute erdiek, eta gainerantzean, erdara hutsez idatzitako mezuak jarri dituzte gehienek (%37).

COVID-19arekin lotutako mezuak: zerbitzuak



Mezuen hizkuntza: zerbitzuak




3. Sare sozialetako emaitza orokorrak


Aurretik aipatu bezalaxe, guztira 602 saltoki behatu dira Tolosako kaleetan. Sare sozialetan, ordea, 100 saltokiko lagina aukeratu da ausaz, kaleko saltokien tipologiaren proportzioa mantenduz. Sare sozial nagusienetan (Facebook, Twitter, Instagram) egin da behaketa eta maiatzaren 11, 12 eta 13an egindako argitalpenak hartu dira kontuan.

Ikusi daitekeenaren arabera, hiru saltokitik bik badute sare sozialen bat martxan. Behaketa egunei erreparatuz gero, sare sozialak martxan dituztenen %60k COVID-19arekin lotutako mezuren bat idatzi dute hiru egun horietan.

Sare sozialak martxan



COVID-19arekin lotutako mezuzak




Galtzaundi Euskara Taldea


COVID-19 krisiaren eragina Tolosako saltokietako paisaia linguistikoan

COVID-19aren inguruko mezuzak sare sozialetan zabaltzen dituztenen %93k Facebook erabili dute eta azken urteetan indarrez sartu den Instagramen kontua ere baliatu dute %54k. Argitalpenen %45 gazteleraz bakarrik idatzi dira, beste %21 ele bietan, eta mezuen laurdena (%26), euskaraz ikusgarriago edota euskaraz bakarrik.

Sare sozialak



Mezuen hizkuntza




4. Sare sozialetako emaitzak, saltokien tipologiaren arabera


Osasun larrialdi egoerarekin zerikusia duten sare sozialetako mezuak saltokien tipologiaren arabera begiratzeko garaian, kontuan izan behar dugu lagin orokorraren prospekzio baten arabera egin direla behaketak. Horren ondorioz, 100 saltokitan egin dira behaketak, kalean aurkitutako saltokien tipologiaren proportzioak mantenduz. Beraz, proportzio txikiena dutenen kasuan, tentuz begiratu behar dira emaitzak, lagina oso txikia baita ostalaritzaren (15 taberna edota jatetxe) eta kate handietako saltokien (6 saltoki) kasuan.

Saltoki handien multzoan sailkatutako guztiek dituzte sare sozialak martxan. Hala ere, sei saltokitatik bostek, %87k, egin dute COVID-19ak bultzatutako argitalpenen bat behaketa egunetan.


Sare sozialak martxan: saltoki handiak




COVID-19arekin lotutako mezuak: saltoki handiak



Horrela, hiru egun horietan osasun egoerarekin lotutako mezuak bota dituzten saltoki handi guztiek Facebook eta Twitter erabili dituzte, eta %66k Instagram ere bai. Gainera, mezu horiek gaztelera hutsean idatzi dituzte sare sozial guztietan.




Mezuen hizkuntza: saltoki handiak




Ostalaritzaren munduari dagokionez, %54k dituzte martxan sare sozialak. Jasotako informazioaren arabera, behaketaren egunetan COVID-19ari buruzko argitalpenak egin dituzte sare sozialetan diharduten lau taberna eta jatetxeetatik hiruk.

Sare sozialak martxan: ostalaritza




COVID-19arekin lotutako mezuak: ostalaritza




Sare sozialetan osasun egoerak bultzatutako mezuen berri ematea erabaki duten guztiek erabili dute Instagram, eta %87k Facebook. Euskaraz eta ele bietan egin dituzte argitalpen gehienak (%66).

Sare sozialak: ostalaritza



Mezuen hizkuntza: ostalaritza




Galtzaundi Euskara Taldea

COVID-19 krisiaren eragina Tolosako saltokietako paisaia linguistikoan


Saltoki txikien %67k dituzte sare sozialetan kontuak irekita. Erabiltzen dituztenen artean, erdiak baino gehiagok, %53k, ez dute COVID-19ari lotutako mezurik jarri behaketa egunetan.

Sare sozialak martxan: saltoki txikiak



■ Bai ■ Ez

COVID-19arekin lotutako mezuek: saltoki txikiak




■ Bai ■ Ez


Galtzaundi Euskara Taldea

COVID-19 krisiaren eragina Tolosako saltokietako paisaia linguistikoan

Behaketa lana egindako egunetan osasun larrialdi egoeraren ondorioz egindako argitalpenak jarri dituzten saltoki txiki guztiek erabili dute Facebooka, %14k Instagrama ere bai. Erdara hutsean egin dituzte argitalpen gehienak (%43), nahiz eta ia erdiek, %49k, euskaraz ere egin dituzten argitalpenak (%28k euskara hutsean edo ikusgarriago jarritz).



Mezuen hizkuntza: saltoki txikiak




Galtzaundi Euskara Taldea


COVID-19 krisiaren eragina Tolosako saltokietako paisaia linguistikoan

Zerbitzuak eskaintzen dituzten saltokien %71ek dituzte sare sozialetan kontuak irekita. Martxan dituztenen artean, hirutik bik (%67), COVID-19arekin zerikusia duten argitalpenak egin dituzte behaketa egunetan.

Sare sozialak martxan: zerbitzuak



COVID-19arekin lotutako mezuak: zerbitzuak




Galtzaundi Euskara Taldea


COVID-19 krisiaren eragina Tolosako saltokietako paisaia linguistikoan

Zerbitzuak eskaintzen dituzte %81ek Facebooken egin dituzte COVID-19ari erreferentzia egindako argitalpenak, eta %50ek Instagramen. Erdara hutsean egin dituzte argitalpen gehienak (%37), nahiz eta erdiek baino gehiagok, %57k, euskaraz ere egin dituzten argitalpenak (%32k euskara hutsean edo ikusgarriago jarritz).

Sare sozialak: zerbitzuak



Mezuen hizkuntza: zerbitzuak



5. Eraitzen laborpen taulak

ERAKUSLEIHOAK: hizkuntzen lehentasuna					
	Saltoki handiak	Ostalaritza	Saltoki txikiak	Zerbitzuak	Orokorra
Euskara hutsez edo euskaraz ikusgarriago	%14	%5	%19	%9	%14
Ele bietan	%18	%45	%40	%50	%42
Erdara hutsez edo erdaraz ikusgarriago	%68	%50	%41	%41	%45

SARE SOZIALAK: hizkuntzen lehentasuna					
	Saltoki handiak	Ostalaritza	Saltoki txikiak	Zerbitzuak	Orokorra
Euskara hutsez edo euskaraz ikusgarriago	%0	%34	%28	%32	%26
Ele bietan	%0	%34	%21	%25	%21
Erdara hutsez edo erdaraz ikusgarriago	%100	%32	%50	%43	%52

ERAKUSLEIHOAK: euskararen presentzia					
	Saltoki handiak	Ostalaritza	Saltoki txikiak	Zerbitzuak	Orokorra
Euskara bermatuta	%32	%50	%59	%59	%56
Erdaraz	%68	%50	%41	%41	%45

SARE SOZIALAK: euskararen presentzia					
	Saltoki handiak	Ostalaritza	Saltoki txikiak	Zerbitzuak	Orokorra
Euskara bermatuta	%0	%68	%49	%57	%47
Erdaraz	%100	%32	%50	%43	%52

ONDORIOAK

- Argi geratu da COVID-19aren krisiak eragin nabarmena izan duela Tolosako paisaia linguistikoan. Tolosako **saltokien %53k krisiaren ondorioz sortutako mezuren bat** jarri dute euren erakusleihoetan. Erakusleiho digitalei dagokienez, **sare sozialak martxan dituztenen %60k** jarri dituzte COVID-19arekin lotutako mezuak.

Beraz, krisi egoera honen ondorioz erakusleiho fisiko zein digitaletan ohar berri ugari agertu dira Tolosako saltokietan. Alderatzeko, 2018ko Neguko Merkealdietako Tolosako azterketan jasotakoaren arabera, Tolosako saltokien %20k hartu zuen parte merkealdietan; COVID-19aren ondorioz, %53k jarri dituzte oharrak kaleko erakusleihoetan. Beraz, **merkealdi sasoiaren inpaktu bisual garrantzitsuko efektua** antzematen baldin bada hizkuntzari dagokionez, **osasun krisi egoeran jazotako uholdea oraindik handiagoa** izan da.

- **Elebitasuna nagusitu** da osasun krisiaren ondorioz jarritako mezuetan. Saltokiek erakusleihoetan jarritako mezuen %42 ele bitan idatzi dira. Hala ere, gaztelera hutsean jarri dira beste %38. Euskara hutsezko zein euskara lehenetsitako mezuak %14 izan dira.

Sare sozialetan ordea, gaztelania presentzia handiagoa izandu du COVID-19aren inguruko oharrak idazterakoan. Sare sozialak martxan dituzten saltokien argitalpenen %45 gaztelerez bakarrik idatzi dira. Ele bitan idatzitakoak %21 izan diren bitartean, euskara hutsean edota lehenetsitako mezuak gehiago izan dira, %26 alegia.

2018ko Tolosako saltokien merkealdien behaketan jasotakoaren arabera, kartel nagusietan, euskararen presentzia %62,5ekoa izan zen (euskaraz hutsean, euskaraz ikusgarriago eta ele bietan idatzitakoak kontuan hartuta). Oraingo behaketan ikusitakoaren arabera, **euskararen presentzia %56koa izan da erakusleihoetako oharretan, eta %47koa sare sozialetako argitalpenetan.**

2018ko Euskara Tolosako Merkataritza, Ostalaritza eta Zerbitzu Guneetan azterketaren arabera, ageriko idazkiak eta oharrak jarrita zituzten saltokien %55ek gaztelaniaz bakarrik jarri zituzten, euskararen presentzia orokorra (ele bietako idatzkiak ere kontuan hartuz) %36koa izan zen bitartean. Beraz, bi azterketak konparatuz gero, COVID-19aren krisiaren ondorioz jarritako erakusleihoetako oharretan euskararen presentziak 20 puntuko gorakada izan du, mezuen erdietan baino gehiagotan euskara bermatuz.

- Saltoki handi gehienek, %81ek, jarri dituzte COVID-19arekin lotutako mezuak. Aldi berean, **euskararen presentzia bermatuz mezu gutxien** jarri dituzten saltokiak dira **kate handietakoak**: mezuen %32tan bermatu dute euskara (ele bitan jarritz, edo euskara hutsez zein nagusituz). **Saltoki txikiak dira euskararen presentzia gehien**

Galtzaundi Euskara Taldea

COVID-19 krisiaren eragina Tolosako saltokietako paisaia linguistikoan

bermatu dutenak zerbitzuekin batera. Biek ala biek, jarritako mezuen %59tan bermatu dute euskararen presentzia. Hala ere, zerbitzuen alorreko saltokietako joera oharrak ele bietan jartzea izan da, **saltoki txikiek euskara hutsezko mezuen alde nabarmenago** egin duten bitartean. Bestalde, ostalaritzako mezuen %50etan euskarak presentzia izan du.

Sare sozialetan berriz, **saltoki handiek** dute presentzia nabarmenena eta hor, **euskara bazterrean uzteko joera are nabarmenagoa** izan da. Saltoki handiek sare sozialetan COVID-19aren inguruan egindako argitalpen guztiak erdara hutsean izan dira. Hemen, **ostalaritzaren alorreko saltokietan nabaritu da euskararen aldeko pauso bat** aurrera; argitalpenen %68etan bermatu dute euskara eta %34etan, gainera, euskara hutsez egin dute.

GALTAUNDIREN IRAKURKETA

Osasun larrialdi egoeraren ondorioz Tolosako kaleetan ohar eta mezu uholdea gertatu da. Ziur aski, gainera, mezu gehiago jartzen ari dira etengabean saltokietako langileak eta arduradunak. Hizkuntza paisaiari buruzko ikerketa garrantzitsua argitaratu zuten Landry eta Bourhis ikerlarien arabera², bi funtzio dituzte bide publikoetako testuek: funtzio informatiboa eta funtzio sinbolikoa. Horregatik, paisaia linguistikoan erabiltzen diren hizkuntzak, hizkuntz taldeen boterearen, estatusaren eta ekonomiaren isla dira.

Beraz, herriko saltokiek bertako paisaia linguistikoan duten eraginaz jakitun, urte luzez lanketa desberdinak egin dituzte sektorearekin Tolosako Udaleko euskara zerbitzuak, Galtzaundi Euskara Taldeak zein UEMAK. COVID-19aren pandemiak, ordea, ezustean harrapatu du gizartea eta baita saltokietan euskara indartzeko lanean ari diren eragileak ere. Horren ondorioz, ez da lanketa berezirik garaiz egin pandemiak sortutako mezu eta ohar andana horretan euskararen trataera zaintzeko. Tolosa&Co elkarteak bere bazkideentzako euskarriak diseinatu ditu, Gipuzkoako Ostalarien elkarteak eta UEMAK ere bai, baina hizkuntzaren trataera kasuan kasu desberdina izan da. Tolosako Udaleko euskara zerbitzutik baina, ez da denboraz ohar eredurik eta jakinarazpenik bidali herriko saltokietara. Herriko merkataritza elkartearekin ere bertatik egindako diseinuetan euskararen presentzia blindatzeko ahalegina egitea gomendagarria da, euskara hutsezko edota ele bietan idatzitako euskarriak sortzeko etorkizunean (erdara hutsezko aukerak deuseztatuz).

Aurreko urteetan egindako lanketek, hala ere, fruituak utzi dituzte eta behaketa honek ere berretsi ditu aurrerapauso horiek. Kontuan izan behar da 2018ko Euskara Tolosako Merkataritza, Ostalaritza eta Zerbitzu Guneetan azterketan, ageriko idazkietan eta oharretan saltokien %36k zutela euskararen presentzia bermatuta (ele bietako idatziak ere kontuan hartuz). COVID-19aren ondorioz erakusleihatik jarritako mezuen %56etan zegoen euskara bermatuta; sare sozialen kasuan %47etan. Igoera nabarmena da hori egoerak alderatuz gero. Aldiz, merkealdiei begira egiten diren lanketa puntualekin konparatuz, COVID-19aren pandemiak eragin erdaldunagoa izan du kaleko paisaian. Beraz, argi geratzen da horrelako egoera berezi batek, izan duen inpaktu bisuala ikusiz gainera, aurre hartzea eskatzen duela, merkealdiekin egiten den bezalaxe. Horretarako, etorkizuneko egoeren aurrean honen arduraren zainena den finkatu beharra dago, alde guztiek euren eginbeharrak eta funtzioak bete ditzaten.

Bestetik, azterketa honek ere agerian utzi du erakusleihatik digitala saltoki geroz eta gehiagok dutela martxan. Orain artean behintzat, saltokiekin egindako lanketetan ez da atentzio berezirik jarri sare sozialetako hizkuntza irizpideetan. Sare sozialetan erakusleihatik

² Landry, R., Bourhis, R. Y. (1997). Linguistic Landscape and Ethnolinguistic Vitality: An Empirical Study. *Journal of Language and Social Psychology*, 16(1), 23-49.

Galtzaundi Euskara Taldea

COVID-19 krisiaren eragina Tolosako saltokietako paisaia linguistikoan

fisikoetan baino gaztelania gehiago erabiltzen dute saltokiek. Beraz, esku hartzea eskatzen duen alorra da hori ere etorkizunera begira.

Azkenik, saltokien tipologiaren arabera hizkuntza jokaera desberdinak nabaritu dira azterketan eta, bereziki landu beharreko saila da kate handietako parte diren saltoki, ostalaritza eta zerbitzuena. Horiek dira komunikazio alorrak landuen dituztenak baina aldi berean, euskararen presentzia gutxien zaintzen dutenak. Kokatuta dauden ingurunera egokituz, beraien eragin esparru handia ikusiz (supermerkatuak, banketxeak etab.), sakoneko lanketa egin beharra dago. COVID-19az haratago, paisaia linguistikoan dituzten lege betebeharrak ere aztertu beharko lirateke horretarako Tolosako Udalarekin eta UEMArekin elkarlanean. Hizkuntz-Eskubideen Behatokia ere bidelagun izan daiteke horretan.

AURRERA BEGIRA ZER?

Behaketa egin den egunetan saltokien %56 itxita zegoen eta ekaineko egoera ez da berdina. Horrela, COVID-19arekin lotutako geroz eta ohar eta kartel gehiago ikusten dira Tolosako kaleetan, eta jende gehiago dabil kalean barrena. Horregatik, eta azterketak utzitako emaitzei jarraiki, neurri zuzentzaileak hartzea beharrezkoa da paisaia linguistikoa euskalduntzeko. Horretarako, Galtzaundi Euskara Taldea Tolosako merkatariekin egiten ari den bisita erronda baliatzen ari da. Aldi berean, Tolosako Udaleko euskara zerbitzuaren zein UEMaren esku hartzea beharrezkoa izango da COVID-19aren krisiaren ondorioz paisaia linguistikoan gertatutako egoerari buelta eman ahal izateko.

Azkenik, egoera berri honek begi bistan utzi du etengabe saltokietan eragiten jarraitzearen beharra. Saltokien zein herritarren kontzientziazioan pausoak ematen jarraitu beharra dago, kanpaina puntualez gain, etengabeko lanetarekin jarraituz. Saltokiei begira lan egiteko asmoa duten eragile guztien arteko koordinazioa eta lan banaketa definitzea ere behar beharrezkoa da horrelako egoeren aurrean ahalik eta egokien erantzuteko.

ERANSKINAK

1. Eranskina: Ikerketaren inkesta

- Saltokiaren izena
- Saltokiaren helbidea
- Saltokiaren jarduera (aukeratu):
 - o Ostalaritza
 - o Zerbitzuak
 - o Saltoki txikiak
 - o Kate handietako saltokiak/zerbitzuak
- Egoera (aukeratu):
 - o Irekita
 - o Itxita
- COVID-19aren ondorioz mezurik? (aukeratu):
 - o Bai
 - o Ez
- Mezuen hizkuntza?
 - o Euskaraz
 - o Euskaraz gehiago edo ikusgarriago
 - o Ele bietan
 - o Erdaraz gehiago edo ikusgarriago
 - o Erdaraz
- Sare sozialak martxan? (aukeratu):
 - o Bai
 - o Ez
- COVID-19aren ondorioz mezurik sare sozialetan? (aukeratu):
 - o Bai
 - o Ez
- Zein sare sozialetan egin dira argitalpenak?
 - o Facebook
 - o Twitter
 - o Instagram
- Sare sozialetako mezuen hizkuntza?
 - o Euskaraz
 - o Euskaraz gehiago edo ikusgarriago
 - o Ele bietan
 - o Erdaraz gehiago edo ikusgarriago
 - o Erdaraz